



## **Position de LAB pour les élections professionnelles du 6 décembre prochain dans l'Education Nationale.**

En 2014, LAB présentait des listes dans la Fonction Publique Territoriale. En 2018, nous présenterons aussi des listes dans la Fonction Publique Hospitalière pour la première fois.

Dans la Fonction Publique d'Etat dont dépend l'ensemble des agents de l'Education Nationale, **le Syndicat LAB fait le choix de soutenir la liste du STC Education (Sindicatu di i Travagliadori Corsi)** pour les élections au Comité Technique Ministériel (CTM) et à la Commission Administrative Paritaire Nationale (CAPN).

En effet, LAB est membre de la Plateforme Syndicale des Nations Sans Etat (PSNSE) et travaille depuis de nombreuses années aux côtés d'autres organisations syndicales comme le STC (Corse), SLB (Bretagne), USTKE (Kanaky), UGTM (Martinique), UGTG (Guadeloupe), UTG (Guyane).

En décembre 2018, le STC Education sera présent aux élections professionnelles et il est donc naturel pour LAB de le soutenir et d'appeler **à voter massivement pour la liste STC.**

Les réformes venant de Paris précarisent le système éducatif dans sa totalité et les organisations syndicales parisiennes sont incapables de faire barrage aux aberrations qui s'abattent aussi sur notre Académie.

Au-delà de nos différentes réalités, de nombreux points nous rapprochent et nous poussent à construire un syndicalisme alternatif au niveau de l'état français.

Nos principaux axes de lutte et revendications:

- Nous soutenons ardemment l'euskara et son enseignement. Nous revendiquons un développement de l'enseignement de l'euskara, qui passe par un soin particulier à la formation des maîtres et par des conditions décentes d'enseignement pour les professeurs et les élèves ; nous exigeons une véritable politique publique de soutien à l'euskara.
- Nous luttons contre toutes les formes d'emplois précaires et revendiquons des postes de titulaires dans tout le système éducatif, et en nombre suffisant
- Contre la dégradation des conditions de travail, nous revendiquons la diminution du nombre d'heures de travail, la réduction des effectifs d'élèves par classe, le développement de la concertation et sa prise en compte dans les heures de travail, une formation continue qui réponde réellement aux besoins
- A l'encontre d'une école qui entretient les inégalités et le tri social, nous voulons une éducation émancipatrice et juste.

Parce que :

- l'euskara occupe une place importante pour LAB et que le corse occupe une place importante pour le STC ;
- LAB et le STC construisent ensemble une alternative syndicale forte et durable au sein de la PSNSE ;
- les principales revendications de LAB et du STC sont identiques.

**Du 29 novembre au 6 décembre, nous faisons le choix de ne parler que d'une seule et même voix !**

Azaroaren 29tik abenduaren 6a arte, STC Hezkuntza bozkatu eta bozkarazi!

**Da u 29 di nuvembri à u 6 di dicembri, vuteti è feti vutà STC EDUCAZIONI**

*Du 29 novembre au 6 décembre, votez et faites voter STC EDUCATION*



Euskal Herrian azaroaren 21an,

## **LABen posizioa heldu den abenduaren 6ko Hezkunde Nazionaleko hauteskunde profesionalei begira.**

2014an, LABek Lurraldeko Funtzio Publikoko hauteskunde profesionaletan zerrendak aurkeztu zituen. 2018an, Ospitaleko Funtzio Publikoan ere zerrendak aurkeztuko ditugu lehen aldikotz.

Estatuko Funtzio Publikoan, zeinen ardurapean diren Hezkunde Nazionaleko langile guziak, funtzionario zein prekario, **LABek hautatu du STC Education (Sindicatu di i Travagliadori Corsi) sustengatzea** Comité Technique Ministériel (CTM) delakoa eta Commission Administrative Paritaire Nationale (CAPN) delakoarendako hauteskundeentzat.

Izan ere, LAB Plateforme Syndicale des Nations Sans Etat (PSNSE)-ren kide da eta egitura horretan aspalditik beste sindikatu batzuen ondoan lan egiten du, hala nola STC (Corse), SLB (Bretainia), USTKE (Kanaky), UGTM (Martinika), UGTG (Guadalupe), UTG (Guyana) sindikatuak.

2018ko abenduan, STC Education-ek hauteskunde profesionaletan parte hartuko du, beraz **LABek STCren sustengatzera eta parrastaka STC zerrendaren alde bozkatzera deitzen du**. Hori arrunt naturala da.

Parisetik heldu diren erreformek hezkuntza sistema bere osotasunean prekario bilakarazten dute eta Pariseko sindikatuak ez dira gai gure Akademia ere hunkitzen duten zentzugabekeria horien geldiarazteko.

Gure errealitate desberdinetaz kanpo, puntu anitzek hurbilarazten gaituzte eta frantses estatu mailan sindikalismo alternatibo bat eraikitza bultzatzen.

Gure borroka eta aldarrikapenen ardatz nagusiak :

- Euskara eta bere erakaskuntza kartsuki sustengatzen dugu. Euskararen erakaskuntzaren garapen berezia aldarrikatzen dugu, zeinek batez ere erakasleen formakuntza hobetzen duen eta erakasle eta ikasleeri plantako baldintzak ematen dizkien ; euskara sustengatzen duen egiazko politika publiko bat fermuki eskatzen dugu.
- Lan prekario mota guzieren kontra borrokatzen dugu eta hezkuntza sistema osoan postu tituludunak eta postu aski aldarrikatzen ditugu.
- Lan baldintzen gaizkitzearen kontra aldarrikatzen ditugu : lan oren kopuruaren ttipitzea ; gelako ikasle kopuruaren murriztea ; kontzertazioaren garapena eta lan orenetan kontuan hartua izan dadin ; beharrei egiazki erantzuten dien formakuntza jarraki bat.
- Desberdintasunak eta bereizketa soziala mantentzen duen eskola baten kontra, norbera bere buruaren nagusi egiten duen bidezko hezkuntza bat nahi dugu.

Zeren :

- LABentzat euskarak toki garrantzitsua hartzen baitu eta STCrentzat korsikarrak toki garrantzitsua hartzen baitu ;
- LABek eta STCk PSNSEren baitan elgarrekin alternatiba sindikal azkar eta iraunkor bat eraikitzen baitute ;
- LAB eta STCren aldarrikapen nagusiak berdinak baitira ;

**azaroaren 29tik abenduaren 6a arte, boz bakar batez mintzatzea hautatzen dugu !**

Azaroaren 29tik abenduaren 6a arte, STC Hezkuntza bozkatu eta bozkarazi!

**Da u 29 di nuvembri à u 6 di dicembri, vuteti è feti vutà STC EDUCAZIONI**

*Du 29 novembre au 6 décembre, votez et faites voter STC EDUCATION*